




**Piarres Lafitte, Iparraldean nafar-lapurta idatzia-
ren bultzatzaileetarik bat.**

joaz bilatzen bazen, oraingoan, guttienezko oinarri bat har-
tzen zen, euskalkiak elkarren kide ziren berezitasunak bil-
tzeko saioa zen. Horrek ez du esan nahi jakina, bazter eus-
kalkiak galtzaile gertatzen ez direnik; morfologia dela ta,
forma batzu hartu ta besteak baztertu beharko ez direnik,
zerbait «hobetsi» beharko ez denik, baina orokorrean jen-
dea nahiko kontent geratu zen ereduarekin. Beste batzuk
aldiz urteetan barrena eredu horren kontra egitea beste de-
siorik ez dute izanzen, aurkako hauen artean joera oso arra-
zionalak eta baita oso irrazionalak ere izan direlarik. Bizkai-
tarrak izan ziren batasunaren auzian galtzaile nagusi, zube-
rotarrak eta ekialdeko ereduak ere ber gisan. Nafarrak, la-
purtarrak eta giputzak ongien atera zirenak, eta azken
hauek izaki euskal kultura idatzizkoan indartsuen, beren
formak oso nabarmen atera dira, maiz askotan batua ez
dena berek batutzat erabilki, gipuzkeraz ari direla ohartu
gabe.

EREDUA HIZKUNTZA IDATZIRAKO PENTSATUA

Baturako eredu, jakina denez, hastapeneko tresnatzat
hartu behar zen, eta ortografia, deklinabidea eta lexi-
korako irizpide oinarritzako batzu zekartzan, gerora behin
betirako geldituko direnak. Erabakiak gerora osatzen joan
da Euskaltzaindia, garrantzi handiko gertatu zelarik Bilbon
1973.en apirilaren 7an aditz laguntzaile baturako erabakia.
Halarik ere erabakiak hartzeko zailtasun handiak izan zi-
tuen (eta oraindik 1988.ean ere bai) Euskaltzaindiak. Ezin
ahantz daiteke euskarak azterketa linguistikoen falta na-
barmena duela eta zerbait erabaki aurretik erroten ezagutu



TXILLARDEGI
(Hizkuntzalari,
idazle eta
irakasle)

KONTATUKO ditut gauza ba-
tzuk, beharbada denek ongi
ezagutzen ez dituztenak
euskara batuaren sorrerari buruz, ze
gauza horietan, beste gauza guztie-
tan bezala, ba askotan gero berridaz-
ten da historia, eta berridazten den
historia horrek ez du antza handirik
gertatu ziren gauzekin. Nire inpresioa
behintzat hori da. Bai E.T.A.ri buruz,
bai euskara batuari buruz, eta niri to-
katu zaizkidan zenbait gauzatan ikus-
ten dut halako fantasma izugarri bat.

Gure asmoa euskara batuaren be-
harra azpimarratu genuenean, neri
dagokidanez esango nuke 55-56an
hasi zela hori, ba ikusten genuen gu-
re herrian behar genuela Hizkuntza
Nazional bat. Guk ikusi dugu, nik be-
hintzat beti ikusi dut euskararen ara-
zoa, oraindik ere bai, guztiz proiektu

behar dela arazoa, zentzu horretan ulertu behar da Euskal-
tzaindiak frankotan forma bat behin betirako erabaki gabe
bada ere, «hobetsi» egiten duela.

Kontutan hartu behar dena bestetik, batasuna garai har-
tan esaten zen bezala «literatura-euskera»rako egina zela,
eta gerora ere hala gelditu da, hau prestatzen ari garen
1988.a arte ez bait da ahozko eredurako erabakirik hartu.
Arantzazun bertan kexatu zitzaion Mitxelena-ri Anburtsi
Zatarain herri-hizkerazalea: «Eztegu aski paperetan eta li-
buruetan berdiñ eskribitzea; gero eskoletan, irratan, tea-
troan, kulpituan eta alkarrizketan bakoitza bere moduz
aitzekotan ezkenuke asko aurreratuko». Ahozko eredu
ere beharrezkotzat zeukan Zatarainek.

Arantzazuko Biltzarre erabakigarri hartako txostenez
bi hitz esan beharrak gara orain.

ERDIALDEKO EREDUAK GAIENDU BAZTERREKOEN KALTETAN

Deklinabidean Salvador Garmendiak egin zuen pro-
puesta, Baionako erabakietan eta Txillardegui eta Mi-
txelena-ri lanetan oinarriturik. Nabarmenezkoak dira sail
honetan ergatibo pluraleko «-ek»; hitzak berezko «-a» itsa-
tsia jan gabe idaztea eta Gipuzkoan eta, zenbaitek gaizki
zerabilten indeterminazio edo mugagabea beharrezkotzat
hartzera erabaki zela.

Hitz berriei dagokienez sailaz Anburtsi Zatarain aritu zen,
sorkuntzarako aski bide garbizaleak eskainiz.

Antxinako euskal hitzen forma oso atal garrantzizkoa
zen, forma desberdin anitz baina erro berbera zeukatzen hi-
tzen artean erabakitzea ezinbestekoa bait zen. Villasante

«BATASUNAREN PROZESUAREN HASIERA ETA GAURKO BEHARRAK»

nazional bati lotuta. Ez badago nazio proiekturik euskara batua, eta euskara piztutzea eta gauza horiek ez dute inongo sentidurik. Garai hartan ere ez. Nik horren prueba bezala emango nuke... nik ez dut uste inolaz ere kasualitate denik kanta berria, ETArek sorrera, euskara batuaren sorrera, Arestiren poesia soziala etab. Hori guztia batera gertatzen da. Hori guztia batera gertatu da hor bazegoelako nere ustez olatu sakon bat, belausal-di berri bat zetorrelako, edota abertzaletasunak beste pauso bat eman zuelako edo biak batera, baina hori dena batera gertatu zen. Orduan, Euskal Herrian, beste herri askotan bezala, euskara batuaren kezka sortu da abertzaletasunarekin.

Beraz, arazo orokor bat dago, euskal nazioaren pizkundea, eta horrekin

lotuta dago nere ustez batasunaren hasiera hura.

Orain zer egin behar den?

Nire ustez momentu honetan bi problema nagusi daude. Hizkuntzak dira hitz eginak izateko. Azkenengo erabakiak euskarari buruz Euskaltzaindiak hartu zituen orain dela 14 bat urte, geroztik ez du ezer egin eta hala ere hor dago kodigo oral guztia erabaki gabe. Eta alferrik da esatea hori ez dela inportantea. Hori da inportanteena. Hizkuntzak hitz egiteko dira. Gaur egun Bilbon euskaraz ikasten duen batek ez dauka euskal erreferentziarik. Eta arauak eman behar zaizkio. Egin behar da arrazionalizatu eta arauak eman. Hori egin daiteke. Nik ez dut uste euskal fonetika batzea euskal aditza batzea baino zailago denik. Baina Euskaltzaindia geratu

da pixka bat atzera, gero eta esklerosi handiagoa dauka.

Eta bestalde hiztegi teknikoari buruz lan handia egiten ari dela baina lan hori UZEI egiten ari dela. Hori esan behar da justiziaren izenean. Momentu honetan euskararen bandera UZEIk darama eta ez Euskaltzaindiak.

Eta beste gauza bat UZEI Jaikin-ekoek sortu zutela. Beraz hor badago kontinuitate bat. Pertsona berak dira ia ia. Hor badago proiektu bat eta UZEIk eraman du aurrera. Euskararen bandera, euskara batuaren bandera hori, euskararen geroaren bandera, UZEIk eta horiek daramate eta ez Euskaltzaindiak.


(IPESen emandako hitzalditik)

aritu zen honetaz eta halako erizpideak eman zituen: kontutan hartzen ziren hitzaren hedadura eta jendearen partetik ezagupena, hitzaren zahartasuna eta tradizioa, ahal delarik bazterrekoa ez dadin izan. Jatortasuna bilatzea zen kontua, eta Villasantek Axularganako zuen mirespina nabarmen gelditu zen. Hitzak dekretuz ez baztertzea erabaki zen, lehen aipatu «hobesten da» formularen bidez.

GORRIEN «H» MADARIKATUA GOITI TA BEHEITI

Mitxelenaren saila izan zen garrantzikoena, ortografiaren gain ere beste arloez mintzatu bait zen. Bere helburuetan euskalkiak gehiago ez elkarrengandik aldentzea eta ahalik eta gehien hurbiltzea zegoen. Eredu hau ez zen Azkuerenetik gehiegi hastantzen. 64.ean hartutako erabakietan oinarritu zen aldaketa txikiren bat edo beste sarturik. Grafietan: (a, b, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, ñ, o, p, r, s, t, u, x, eta z. Erdal izenatarako c, qu, v, w eta y. Diagramen artean rr, dd, tt, ll, ts, tx eta tz. Aipagarria da guzti honetan, batetik «f», anitzek, giputzek batez ere, arbuatzen zutena eta bestetik «rr» eta bestelako diagramak, ordura arte Hegoaldeko askok Aranaren «f» egiten bait zuten.

«h» letraren afera izan zen gogorrena, Hegoaldeko gazteak alde bazeuden ere, zahar eta ez hain zahar asko ta asko aurka bait zeuden. Garbi utzirik «h» euskal sistema kontsonantikoan jatorra zela eta Iparraldekoentzat eguneroko ogia zela, sartzea erabaki zen Baionen bezala. Mitxelenak pentsatzen zuen «h» zaleen indarra handia zela eta bere eremuan sartzea erabaki zuen, Azkuek ez bezala, hark bai bait zekien Hegoaldean ez zitzaiola gehiegizko ixtimazio-



Gabriel Aresti, batasunaren bultzatzaile tematia.